

Hierro Uhartea.

Meridianoko uhartea. Hala deitzen zitzaien zero meridianoa uhartean sartalderen zegoen puntuan kokatu zen bitartean. Kanariar uharteen artean txikiena da eta mendebalderen kokaturik dago. II. mendean mundua bertan bukatzen zela uste zuten eta harantzago ausartzen zenak herensuge eta itsas munstroak besterik ez zituela aurkituko.

Harkaitzetako deszifra ezinezko petroglifoak jatorri bolkanikodun egitura horretan grabatutako misterio bat dira. Gainazalean mila krater baino gehiago ditu eta itsas hondoetan erraz aurki ditzakegu labazko arku, koba eta tutuak.

Biosferako Erreserba da 2002. urtetik. Hondo horietan murgiltzeak ur epel eta segur aski artxipiologo osoko garbienak eskaintzen dizkigu.

Uhartea oso malkartsua da eta erraz iris gaitzke 100 metrotako sakonerara, kostaldetik gertu bagaude ere. Hau dela eta udako hilabeteetan sakonera horietako itsas ikuskizun zoragarriaren lekuko izan gaitzke.

Mero handiak, muxarrak, tronpeta-arrainak eta koral beltzak aurki ditzakegu “munduaren azken muturreko uhartea” izendatua izan zen honen sumendi hondoratuetan.

Goian, lurrazalean, naturaren indarrek zizelkatu dute uhartea:haize alisioek ikusgarriki hezitako milaka urteko miter edo sabinak. Eta Golfo haraneko lur landu eta mahastiak paisaia aniztasunaren adibide garbi dira, eta kontraste gisa efektu zoragarri eta nahasgarriaren hegoaldeko gailurrak, laba solidifikatuzko egiturekin: *lajjalak*.

Inguru hauetako aberastasun natural izugarria babestearen alde, 1977. urtean, uhartea energia berriztagarriak soilik erabiliko zituen lehenengoa izatera eramango zuen proiektua onartu zen, iraunkortasun eredu bihurtuz.

Hierro uhartearen hondoetan egiazko kareta, dortoka bat dugu gure sarraldiaren gidari, bizitzaz beteriko zulo eta hutsarte liluragarrietan zehar.

Koral beltzezko eremuetan ohiko biztanle, tronpeta-arrainak, koba eta hondo harkaiztsuak ditu gustuko, jarrera bertikalean kamuflatu eta babesteko, zara handiz beste arrain txikiago bat xurgatzeko momentu egokiaren zain.

Urpeko munduak, sakonean taupaka, bizitzaz gainezka egiten du babesturiko ur hauetan.

Iluntzean alga eta belaki disdiratsudun tapizek bere forma ugariak erakusten dizkigute eta bizitzaz betetzen dituzte sakonerak. Nudibrankioek kolore joridun kodigoak erakusten dituzte kanariar gauaren babesean.